



## **FUNTSEZKO SOZietATEAK**

Lehenik eta behin, erabiltzaile nagusiak aipatu behar dira, hau da, adineko pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak. Proiektu hau bereziki haientzat sortua da, askotan larrialdi egoeretan ateak irekitzeko zailtasunak izaten dituztelako, mugikortasun arazoengatik edo osasun arazoengatik. SegurAte sistemari esker, ateak automatikoki irekitzen dira eta horrek pertsonen segurtasuna handitzen du.

Bigarrenik, familia kideentzat ere funtsezkoak dira. Haiek dira larrialdi bat gertatzen denean abisua jasotzen dutenak, eta horrek lasaitasuna ematen die bai erabiltzaileari bai familiari. Gainera, ez da beharrezkoa etxean bertan egotea egoeraren berri izateko.

Bestalde, larrialdi zerbitzuak ere oso garrantzitsuak dira. Sistema honi esker, etxebizitzara azkarrago sartu daitezke, atea apurtu gabe eta denbora galdu gabe. Hori funtsezkoa da pertsonak bere kabuz mugitu ezin direnean.

Lan hau aurrera atera dezan hainbat enpresen laguntza beharko dugu. Alde batetik, segurtasun eta alarmen enpresak, adibidez Securitas Direct, Prosegur, sentsoreak eta larrialdi-sistemak lantzen dituztelako. Bestetik, ate eta sarraila elektronikoen enpresak, hala nola Assa Abloy, Dormakaba edo TESA, ate automatikoak eta sarbide-kontrola egiten dituztelako. Horrez gain, instalazio elektrikoetako enpresa lokalek sistema etxebizitzetan eta egoitzetan instalatu dezakete, eta mantentze enpresek sistemaren funtzionamendua bermatzen dute. Azkenik, larrialdi zerbitzuak (112), senideak eta zaintzaileak abisatzen ditu APP-aren bidez.